

# noaua

**Lip dub-a ostiralean  
emango dute  
frontoian**

**Usurbil Futbol  
Taldeak 40 urte  
bete ditu**

**IX. Buruntzaldeko  
Ibilbideen Eguna  
izango da igandekoa**



**‘Bai’ ala ‘ez’  
bozkatzeko aukera**

**AZKEN PLAZAK!**  
*garaiz zaude!*

**BIDAIA TALDEAN**  
Isteera Lasarte-Oriatik  
abenduaren 3tik 8ra

**Hegazkinak Bilbotik!**

**ISLANDIA**  
Aurora Borealak **1.940€**

**MUNICH**  
Gabonetako merkatuak **839€**

**KRUZEROA**  
Guadalquivir ibaian **891€**

Persona bakoitzeko prezioak. Tasak barne. Informazioa eta erreserbak bulegoan.

**NOAOA BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Ipeldrome Etxebidea, 10 - 20100 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613 | info@nooaabidaiak.com  
www.nooaabidaiak.com

**guria**  
*taberna*

**EGUNEKO MENUA 10€**  
(ASTELEHENETIK-OSTIRALERA)

PLATER KONBINATUAK, HANBURGESAK,  
ENTSALADAK, OGITARTEKOAK, RAZIOAK...

**PINTXO-POTEA!** (OSTEGUNETAN 19:00-21:00)

**PUNTAPAX 12 , 943 55 93 35**

**ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA**  
2 etxebizitza gelditzen dira!

**AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!**

**12 ETXEBIZITZA**  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
Lazkano Pasealekua, 1º Behea  
20009 Donostia E: contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

**www.viviendaslanin.com**

## Albiste iruditan

# Aniztasuna agerian

L arunbatean frontoira hurbiltzeko aukera izan zutenek, munduan zehar bidaiatzeko aukera izan zuten. Goiz partean, jatorri ezberdinetako herritarrak haien sorterriko jakiak prestatzen aritu ziren. Usurbil Herri Anitza jaialdiaren baitan El Salvador, Nikaragua, Sahara, Ghana, Nigeria, Mauritania, Honduras edota Argeliako ohiturak ezagutu ahal izan genituen.

## Bizilagunak ezagutu

Usurbil Herri Anitza bezalako ekimenek argi uzten dute badela azaleratzeko dauden herri, bizimodu, kultura eta errealitate anitz, udalerrri honetatik atera gabe. Egoera hau iraultzen laguntzeko, "Bizilagunak ezagutu!" eguna egingo da azaroaren 13an.

Etxeko mahai baten bueltan, jatorri ezberdinetako bi herritar talde (fami-  
liak, lagunak...) batzen dira bazkari-  
tarako. Aurrerago emango ditugu xe-  
hetasun gehiago, baina izena emateko



Arratsaldean, Lasarte-Oriako Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako kideen ikuskizunak jende asko batu zuen frontoian.

eta argibide gehiago jasotzeko aukera irekita dago:

- 943 336 071/618 420 766.
- amherbizilagunak@gmail.com

- socracismobizilagunak@gmail.com
- mugak.eu
- Facebook: /Bizilagunak
- Twitter: @bizilagunak2016

## Laburrean

### Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa

Urriaren 26an izango da, arratsaldeko 18:00etan Sutegi udal liburutegian. Usurbildarraren saioa, HH5ekoei zuzendua egongo da.

### Urriaren 30ean, 1946an jaioetakoen bazkaria

Izena aurrez eman beharko da Laurok liburur dendan, urriaren 23a baino lehen. Honatx Laurokeko telefono zenbakia: 943 36 34 48.

### Azaroaren 19an, 1972koen kinto bazkaria

Azaroaren 10a baino lehen eman behar da izena. ES38 0182 6043 2102 0151 4132 (BBVA) kontu zenbakian 40 euro ingresatu eta izen abizenak ipini.

# noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaia.eus // www.noaia.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaia.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

## Galdetzeaz

**M**adrilgo Udaletxeak bi herri kontsulta ezberdin antolatuko ditu laster. Garraio publikoaren ingurukoa izango da lehen kontsulta: metroa zein autobusaren txartelak bateratzeko proposamena.

Hiria jasangarriago egiteko neurri batzuen ingurukoa izango da bigarren kontsulta.

Lehen bi galdeketak izango dira. Baina eskaera gehiago espero dituzte.

Garraioa Madrilgo Erkidegoaren eskumena da. Ez Udalarena. "Baina kontsultaren emaitza txartelak bateratzearen aldekoa bada, Udalak bere egingo du eskaera eta presioa egingo du txartelaren bateratzea burutu dadin". Pablo

Soto Madrilgo zinegotziaren hitzak dira horiek.

Google santuan sartu naiz eta hau guztia bideratzeko mekanismoarekin egin dut topo: *Decide Madrid* web gunearen bitartez, herritarrek euren proposamenak helarazteko aukera dute. Proposamen batek Madrilgo errolda osoaren %1aren babesa jasotzen badu, eztabaida prozesu bat zabaltzen da web gunean. 45 egunekoa. Herritarrek proposamen horren inguruko informazioa jaso dezan.

Eztabaida epea itxi ondoren, bozketak garaia iritsiko da. Madril darrei astebeteko epea emango zaie alde edo kontra dauden esateko. Hirian barrena barreiatuta dauden 26 bulegoetan eman daiteke bozka (*Ofici-*

*na de Atención al Ciudadano* delakoetan), edo Internetez.

Portzert, kontsulta hauetan ere 16 urtetik gorakoek har dezakete parte.

Galdeketa horien emaitzak ez dira lotesleak izango. Baina Udalak gogoan izango ditu eta bozkatutako neurri bakoitzaren bideragarritasuna aztertuko duela dio web gunean.

*Zertara dator hau?* Pentsatuko du baten batek. Asteburu honetan, euren iritzia emateko aukera emango zaie usurbildarrei. Kontua da Erraustegia Erabakia herri plataformak hartu duela kontsulta antolatzeko lana eta ardura. Erraustegia Erabakia herri plataformak burutuko du, hain zuzen, Usurbilgo Udalarik galdeketa hau bera antolatzea

galarazi egin ziotelako.

Errauste-planta bat eraiki eta martxan jartzeak urte luzez baldintzatuko luke udalerrri baten martxa. Eta batez ere, bertan eta inguruko herrietan bizi diren herritarrek. Suposatuko lukeen kostua ere, hala moduzkoa litzateke.

Ez da udal bati dagokion eskumena izango, baina gai honen inguruan bere herritarren iritzia batzeko aukera debekatu zaio Usurbilgo Udalarik. Legearen izenean.

Ez zait iruditzen ohar-kabea pasatzeko moduko kontua denik. Gai honetan edo besteren batean, galdeketa ez litzateke arazo izan behar. Erantzuna edozein izanik ere.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Ilazki Gaintza | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai

## Joseba Larratxeren komikia



\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 24.

## Ika-Mika

## Erraustegirik ez! Ez Zubietan ez inon

Erraustegiek eragiten duten kutsadura osasunarentzat kaltegarria izan daitekeela garbi dugu usurbildarrok. Kezka horri kasurik egin ez eta badakigu nolako errauste planta eraiki nahi diguten Zubietan, usurbildar eta gipuzkoar askoren hitzari jaramonik egin gabe. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoko Zuzendaritzaren 2004. urteko txostenean argi adierazten da "zenbait ikerketetan ikusi dela hondakin organikoaren errausteak malformazioak ez ezik minbizi mota

desberdinak eragin ditzakeela".

Datuak hor daude beraz. EH Bilduk ez du Usurbildarren osasunaren aurkako proiektu txikitailerik onartuko.

Egoeraren gordintasunari muzin eginez, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek bereari eusten diote Zubietako erraustegia eraikitzeo ahaleginean. Zentzuzko esaldi batek honela dio: "Burua ondo daukanak ez du etxe ondoan nahi, bihotz ona daukanak besteen etxe ondoan ere ez du nahi".

Usurbilgo EH Bilduk inposaketa honen aurrean mobilizaziorako deia egiten du. Gure herriaren etorkizuna ilunduko duen proiekturik ez dugu nahi! Beraz urriak 21-22-23 egunetan egingo den herri galdeketa parte hartzea behar beharrezkoa ikusten dugu zeuon haserrea adierazteko. Nola egin hori? Ez bozka eman ez.

Ustelak lurpera biritza da handiena.

Usurbilgo EH Bildu

## Ika-Mika

## Erraustegiaren ereduari ezetz esaten diogu

LAB sindikatuak, errauskailua bezalako proiektu arriskutsua betirako alboratzea eskatzen du. Errausketa prozesuak ingurumeneko eta osasunerako toxikoak diren substantziak isurtzen ditu, zaborra hondakin arriskutsu bihurtuz. Erraustegiak energia eta baliabide xahutzailak dira eta bere eraginak, inguruko ekonomia larri kaltetzen du, horrez gain, eta Gipuzkoan erakutsi izan denez, aukera ekologikoak garatzea oztopatzen du.

Langileon osasunaren aldekoak eta ingurumenaren eta enplegua-

rentzat onuragarriak diren politikak berreskuratu behar ditugu. Interes pribatuaren aurrean beste hautu bat egitea posible delako, osasunaren eta ingurumenaren aldeko apustu garbia burutuz eta egingarriak diren eta funtzionatzen dutela argi geratu diren politika praktikoa arduratsuek gure egunerokotasunean txertatuz. Gure herria horren adibide garbia izan da azken urte hauetan.

Erraustegiaren ereduari ezetz esaten diogu, gure osasuna, ingurumena eta enpleguak sortzearen alde, konbentziturik gaudelako,

eredu jasangarri bat ekonomikoki ere bideragarriagoa dela eta gainera askoz ere enplegu sortzaileagoa dela.

Usurbildarroi erraustegiaren proiektuak zentzu askotan eragingo digulako urriaren 21, 22 eta 23an egingo den herri kontsultan parte hartzerantz animatu nahi ditugu herri-tar guztiak.

Ez zaitez etxean geratu! Entzun gaitzatela!

LAB sindikatua

## Usurbilen agertu

## diren pintadak gaitzetsi ditu PSE-EEK

Alderdi sozialistaren eta alderdi jeltzalearen aurka agertu diren pintadak kentzea eskatu du PSE-EEK.

"Adierazpen askatasuna errespetatzen dugun arren, pintadak PSE-EEren posizio politikoaren duintasuna erasotzen dute", prentsa-ohar bidez aditzera eman duenez. Horregatik, Usurbilgo alkateari eskatzen diote "bitarteko guztiak jar ditzala pintada horiek lehenbailehen ezabatuak izan daitezela".


## Jarduera politikoa oztopatu

Pintadak bi hizkuntzatan eta herriko toki ezberdinetan egin direla salatu du alderdi sozialistak. "Incineradora, PNV PSE: cáncer erdaraz eta Erraustegia, PNV PSE: kantzerra, guztiz faltsua dena".

Usurbilgo jarduera politikoan, era honetako ekintzek alderdi sozialistaren funtzionamendua oztopatzen dutela dio PSE-EEren prentsa-oharrak.



PSE-EEK eskaera zuzena egin dio alkateari: "bitarteko guztiak jar ditzala pintada horiek lehenbailehen ezabatuak izan daitezela".



# Usurbil Futbol Taldeak 40 urte,

**G**araiko gazteei alternatiba bat eskaintzeko sortu zuten. Ibilbide luze batek bere baitan izaten dituen une zailak gainditzen jakin dute. Une pozgarri asko eman dizkiote herriari. Eta 40 urte ospatzera heldu dira, alternatiba izatetik proiektu sendo bat edukitzera pasata. Badu zer ospatua Usurbil F.T.-k larunbaterako antolatutako urtemuga festan, lau hamarkadotako historia laburbildu diguten zuzendaritza ezberdinetako kide eta presidenteon esanetan.



**Ezkerretik hasita, Mikel Uribe, Oskar Martin, Txema Iturrioz, Nagore Unanue, Jose Antonio Segurola eta Imanol Bereziartua.**

## Antxon Aguaron: “Lanak zerbaiterako balio izan zuen”

Benantxio Otaegi apaizak komentatu zidan ia herrian norbait egon zitekeen, drogekin zegoen arazoari aurre egin eta kirola sustatzeko. Eskubaloi taldea bazen orduan. Futbolzaleak ere baziren herrian, baina ez zen talderik eta hala hasi ginen: zelaierik zelai, Donostian, Orion... Harane egin ziguten arte. Diru-

rik ez, baina afizioa, adorea, go-goa genuen, elkartasun handia zegoen. Hazia guk jarri genuen. 12 urte egin nituen klubean, denetarik egitea egokitu zitzaigun, Jose Fernandezi, omendua izatea merezi duen Salazarri eta hiruroi. Gazte bat egon zen, klubari esker drogekin arazorik ez zuela izan esan ziguna, barruraino heldu zitzaigun. Horrek asebetetzen nau gehien. Lanak zerbaiterako balio izan zuen. Haraneko zelaia erabiltzen hasi ginenean ere, besterik ezean,

iluntzeetan foku batzuk jartzen aritzen ginen, gutxienik porteria ikusteko. Ondo ospatu dezazuela 40. urtemuga!

## Jose Fernandez: “40 urteren ondoren, bada zer ospatua”

1975ean Lanbide Heziketan, ikasleen ilusio handiena futboleko jokatzeari zen ikasle talde bat genuen. Taldea osatu nahi zuten. Irakasleotako bat, Be-

nantxio Otaegi mugitzen hasi zen. Gazteok beste alternatibarik ez bazuten, bagenekien nora zihoazen. Arriskua handia zen. Benantxiok orduko errealitatea zein zen argi ikusten zuen. Ikasleek Donostiako plaiaroe-tan jokatu nahi zuten, baina ezinezkoa zen, Zarauzkoan parte hartzen utzi ziguten. Gazteak oso pozik. Eskolara agian berandu joango ziren, baina futbol partidetara puntual agertzen ziren. Motibagarria izan zen haientzat. Galduta ere, haientzat garrantzitsuena osatu zuten lagun koadrila zen. Oso giro ona zuten, oso gazte jatorrak ziren. Aukera eskaini genien eta hemen daude emaitzak. 40 urteren ostean, Usurbil F.T.-k badu zer ospatua, baita herriak ere.

Herriak jakin behar du jende batek bere eremu pertsonaleko ordu asko eskaini dizkiola talde honi. Besteak beste, gehien inplikatu den Salazarri omenaldi bat egin beharko litzaioke. Zorionak eta segi horrela urte askoan!

## Imanol Bereziartua: “Jende asko aritu da klubean lanean”

“Erregionaletan jokatzeko genuen. Aurreko zuzendaritza taldeak uztea erabaki zuenean sartu nintzen 2000. urte inguruan. Ez zen une oso ona, taldea ia desagertzen zen. Osatu zen talde berrienarekin, neskenarekin bakarrik geratu ginen urte pare batez. Hasieratik genuen asmoa jendea berriz biltzea zen eta pixkanaka talde kopurua areagotzen joan zen. Kluba mantentzea lortu genuen, gero etorri

zirenak eman zioten buelta egoerari. Gure garaiko azken urteetan hasi zen antolatzen, azken aldian modan dagoen Usurbil Cup.

### “Futbolak bere ekarpena egin dio herriari”

Urtemuga honetan, ondo legoke oroitzea jende asko ibili dela klubean eta lan handia egin dela. Futbolak ere bere ekarpena egin diola herriari. Aurrera begira, mantentzearekin gutxi ez”.

## Oskar Martin: “Gehiago bete ditzala eta hala jarrai dezala”

“Delegatu lanetan jardun eta aurreko taldeak utzi ostean, sartu nintzen zuzendaritzan 1992-1993 denboraldian, 1999 urtera arte egon nintzen. Ez genuen kluba desagertzea nahi. Jende asko ezagutzeko aukera eman zidan. Garai hartan, erregionalak bigarren mailatik lehenengora igo ziren. Igoera Sagardo Egunarekin egokitu zen. Kamioi bat lortu genuen, kamioian igo eta herrira jaitsi ginen herriarekin ospatzera. Oroitzen dut, garai hartan jende gehiago etortzen

zen partidak ikustera. Ika-mika gehiago izaten zen.

### Zelai lokaztu hura

Gogoan dut zelai lokaztu hura, orain askoz hobeto entrenatzen dute. Usurbil Cup, Agerialdeko frontoian ospatzen zen. 40 urtera iristea soilik, ospatzeko arrazoia da. Gehiago bete ditzala eta hala jarrai dezala. Ia jende gehiago etortzen den Haranera. Eta ospakizunetara; ia, aspaldi elkar ikusi ez dugun jendearekin egoteko aukera dugun”.

# alternatibatik sendotasunera

## Mikel Uribe: “Oso oroitzen onak ditut”

1977an hasi nintzen, Zarauzko plaieroetan jokatu nuen. Gipuzkoako 2.mailan bigarren geratu ginen. Zelai handiko debuta Mitxelinen izan zen, klubeko fundatzaile Benantxio Otaegi apaizari esker. Apaizak, herriko gazteak kanpora jolastera saihestu nahi zuen, drogen kontsumoa eragozteko alternatibak eskaini. Bi urtez jubeniletan aritu ostean, zuzendaritzan eta Donostiako plaieroetako taldeko entrenatzaile lanetan hasi nintzen. Zuzendaritzan hiruzpalau kide ginen, denetarik egitea egokitu zitzaigun. Lehen areto futbolako txapelketa antolatu genuen Santuenean. 1981ean lehen erregional taldea osatu zen, inguruko herrietako zelaian hasi ziren jokatzen, 1982 aldera euriak lokazten zuen Harane eraiki zen arte. Gu ere hipodromoan entrenatutakoak gara. Gero bi urtez presidente egon



Antxon Aguaron, Nagore Unanue eta Jose Fernandez.

nintzen, 1988an Tolosara bizitzera joan nintzen arte. Asko gozatu nuen, oso oroitzen onak ditut. 40. urtemugako ospakizunetan parte hartu eta partidak ikustera animatu nahi nituzke herritarrak. Pozgarria da ikustea, halako zelai bat, herritarren inplikazioa eta kluba sortu zenetik egon den erreleboa.

## Joxe Antonio Segurola: “Denok koadrilakoak ginen”

Jokalari moduan hasi nintzen

Usurbil F.T.-n. Plaieroetan lehenik, gero erregionaletan. Gehienak koadrilakoak ginen. Jende oso ona egia esan. Bospasei neurketa jokatu nituen. Lan istripu bat izan nuen gero, eta hor amaitu zen jokalaria bezala egindako ibilbidea. Gero, zuzendaritzan sartu nintzen idazkari, alebinekin entrenatzaile, Haraneko futbol zelaia eraikitze borrokan. 20 urte nituen, gazteegia eta ardura handia. Eskerrak jende jatorra zegoen, jokalaria eta zuzendaritzako kideen artean, denok koadrilakoak ginen. Kluba utzi nuen, Tolosara bizitzera joan

nintzen. Futbolak asko eman zidan, kirolari amorratua nintzen eta lagun artea, ikaragarria izan zen. Beti jarraitu izan dut Usurbil F.T. Iloba ere hemen aritu da jolasten.

40 urte betetzea soilik, ospatzeko modukoa da. Baita garai bateko jendeak horrekin duela ikustea. Eginiko lana ospatzekoa da, herritarrak jabetu daitezela hemen badela lan asko egin duen jendea.

## Usurbil F.T.-ren 40. urtemugako ospakizunak

Urriak 22, larunbata

■ 12:00 Futbol partida irekia Haranen. “Gerturatzaren direnekin jolastuko dugu”.

■ 14:30 Bazkaria Saizar Sagardotegian eta argazki erraldoia bertaraturikoekin. Izen ematea urriaren 19an itxi zen. Ondoren, Dj Larra.

■ Antolatzailea: Usurbil F.T.

## Nagore Unanue: “Nesken taldea berreskuratu nahian gabiltza”

“Trantsizio unean ginen 2012an, zuzendaritza taldeko kide batzuk utzi eta kide berriak sartu ziren. Lehendakari izatea proposatu ninduten eta gehiegi pentsatu gabe eman nuen baiezkua. Baliabideen erabileran, jarreran, harreman mailako heziketan eragin nahi izan dugu azken urteotan. Tarte honetan, maila gorenean erregional taldea izan dugu, Ohorezko Mailan. Nabarmen indartu da Usurbil Cup ekimen koloretsua. 40. urteurre-

na gure zuzendaritzarentzat berezia da, lan asko egiten baita egunerokotasunean. Tarteak, halako festa uneak politak dira, denak elkartu eta hitz egiteko. Egungo kide guztiek gain, ilusio berezia egingo lidake lehengoko jendearekin elkarteak. Nesken taldean jokaturakoa naiz, ia talde hartakoak itzultzen diren. Emakumezkoen futbola berreskuratu nahian gabiltza. Bizipoz txikia badugu halere; infantiletan nesken bi talde ditugu”.

## Txema Iturrioz: “Ahalik eta jende gehien etor dadila larunbatean”

“Usurbil Futbol Taldea desgaitzeko arriskuan zegoela, kide bat tarteko, talde bat osatu genuen 2005ean. Sartu nintzen, laguntzeko prest. Presidentetzarako proposatu ninduten, ahal zena egiteko. Gure erronka, Usurbil F.T. ez desgaitzea zen. Poliki hasi ginen. Dirua falta zen, publizitate berriak lortzen, tailer batzuk egiten aritu ginen. Nola edo ahala aurrera egin genuen. Gero poliki-poliki batzuk joan ziren, beste talde bat sartu zen eta haiei esker indartzen

joan da Usurbil F.T. Futbol Eskola sortu zen, eta orain arteko lanketaren emaitza hemen dago. Gustura. Apustuak merezi izan zuen. Gazte asko daude, kalean ikusi baino kirola eginez ikustea askoz hobeto. 40. urtemuga honetan, egindako lana ez dadila atzean geratu. Ia hurrengo urtean talde gehiago dauden. Ahalik eta jende gehien etor dadila. Lehengo eta oraingo kideak elkarren artean ezagutzeko aukera ederra izango da urtemuga”.

# “Usurbilgo txokoak” argazki lehiaketa jarri da martxan



Bi kategoria daude: 4-16 urte arteko haur eta gazteak batetik, 17 urtetik gorakoak bestetik.

Hurbilago Elkarrekin, Usurbilgo irudiekin apaindu nahi ditu herriko denda eta establezimenduak. “Usurbilgo txokorik eder eta berezienen” izeneko argazki lehiaketa antolatu du horretarako. Argazkilari amateur zein profesionalei zuzendua dago txapelketa. Bi kategoriatan banatuko dute ekimena, 4-16 urte arteko haur eta gazteek eta 17 urtetik gorako helduek parte har dezaten.

Beti ere baldintza batzuen baitan: parte hartzaile bakoi-tzak gehienez bi argazki aurkeztu ahalko ditu; Usurbilen eginiko argazkia izan beharko du (argazkiaren tokiko helbi-

## EPEA: AZAROAK 15

**“Argazkiak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, Ivan Perez argazkilariaren establezimenduan”**

dea eta deskribapena adierazi); argazkiak aldeztu aurretik argitaratu gabea izan behar du, urriaren 1etik azaroaren 15era arteko tartean eginikoa; argazkiko edukien erantzule bakarra argazkia aurkeztu duenarena izango da. “Identifika daitezkeen pertsonak agertzen diren argazkien kasuan, lehiakideek pertsona horien baime-na izan beharko dute. Pertsona

horiek bere irudiaren erabilera baimendu badute, Hurbilago baimen hori eskatzeko eskubidea izango du”, ohartarazi dute Hurbilago Elkartetik.

Argazkiak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, Ivan Perez argazkilariaren establezimenduan; Bordaberri 3, 2. lokala. Sari bikoitza iragarri dute; batetik haur eta gazteen kategorian Fujifilm XP90 argazki kamera, eta helduenean, Canon 760D + 18-55 mm EF-S IS STM kamera. Ez hori bakarrik, eginiko argazkiak herriko saltokietan jarriko dira ikusgai.

Argibide gehiagorako:  
Facebook: Hurbilago  
hurbilago.com

## Martxan da Errigora-ren kanpaina berria

200 herri eta milaka etxetara heldu dira. Ia 500.000 euroko laguntza batu dute 3 urteotan. Ezinbestekoa izan da tartean, usurbildarrok emandako laguntza. Ate joka dugu Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpen eta salmenta sustatu eta jasotako laguntzaren zati bat euskalgintzako proiektuetara bideratzen duen elkartasun kanpaina berria. Urriaren 24tik aurrera, saskien eskararak NOAUA!, Aitzaga, Artzabal, Aizpurua Okindegia, Bordatxo, Kaffa, Txiriboga eta Lizardin egin ditzakezue.

■ Epea: urriak 24-azaroak 8.  
■ Bi produktu otar aukeran:  
-Saski beltza: oliba-olio birjina, mahats-zukua, potxak, melokotoi-marmelada, arbendolak, borraja ekologikoa, pikillo piper mama, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean eta ardo ekologikoa. Prezioa: 50 euro.  
-Saski zuria: txokolatezko gutziak, pasta ekologikoa, arroza, polborioak edo teilak, madaria almibarrean, eskalibada, pikillo-saltsa, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo-piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean eta ardo ekologikoa.

■ Prezioa: 50 euro.  
■ Informazio gehiago:  
943 360 321 (NOAUA!)  
errigora.eus

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
20170 USURBIL  
Tlf 943 37 08 78



# Praktikatu eta Bizizi



Izan zaitez berbalagun, mintzalagun, mintzakide...  
Zure euskara hobetzeko aukera paregabea.



**praktikatu**  
mintzapraktika  
egitasmoak **aek**

607 609 379  
[usurbil@aec.eus](mailto:usurbil@aec.eus)

ETUMETA AEK  
Kale Nagusia, 45 behea  
20170 USURBIL



# Kantuan eta dantzari, hitz eske



Iragan igandeko lip dub-aren grabazioko irudi bilduma osoa: noaue.eus atariko Argazkitegia atalean.







**Klik! batean**

## Jai giroan

Lip dub-aren grabazioan, aurreikuspen guztiak bete ziren. Kantuaren lemar-ekin bat eginez, iritzia emateko aukera izango dute asteburu honetan.

Argazkia: Ion Markel



# Herritik herriarentzat

Usurbilgo Udalarri galdeketa antolatzea debekatu zitzaionean, Erraustegia Erabakia herri plataformak bere gain hartu zuen asteburu honetako galdeketa antolatzeko ardura. Lan talde ezberdinetan egituratu zen plataforma eta azken hilabeteotan, etenik gabe, gogotsu eta gogor aritu dira lanean. Haiengana jo dugu, eginiko lanketaren berri jaso eta asteburu honetako ekimenaren garrantziaz galdetzeraz.

1.- Zein izan da zuen egitekoa?

2.- Zer nolako garrantzia du galdeketa parte hartzeak?

Joxe Mari Irazusta, finantziarioa:  
“Gure etxe atarian ezarri nahi digute makroproiektu hau”



Aurrekontua 7.000 eurokoa izango da. Gastuei aurre egiteko kontu zenbaki bat ireki dute: ES 36 3035 0140 37 1400030079.

1.- Aurrekontua 7.000 eurokoa izango da. Horri aurre egiteko hainbat bide jarri ditugu martxan; kontu zenbakia ireki genuen, herritarrak ekarpen baliotsuak egiten ari dira; eragile politiko eta sindikalekin harremanetan jarri ginen eta ondo erantzun digute; jaietako txosnatik ere gazteek diru interesante bat pasa digute eta taloak saldu genituen; kamisetak saltzen aritu gara, gaztainak lipdub grabazioaren egunean. Oraindik azken erronka falta zaigu. Hor dago kontu zenbakia, ekarpen guztiak gustura hartuko ditugu. Behar beharrezkoa zaigu, hau guk antolatu eta ordaintzen

dugu.

2.- Halako gai garrantzitsu batean iritzia emateko aukera izatea, demokraziaren oinarritzko eskubide bat da. Galdeketa garrantzia berezia du, jakinda non gauden. Usurbilen gaude, gure atarian ezarri nahi digute makroproiektu hau. Horren aurrean ez da nahikoa erraustegiaren aurka gaudela esatea, baizik eta hori erakutsi egin behar da. Eta erakusteko modu garden bat eta aukera bikaina da galdeketa honetan parte hartzea. Erraustegiaren alde daudenek ere beren iritzia agertzeko aukera izan dezaten lanean ari gara. Haien ere parte har dezatela.

Garbiñe Errekondo, arlo juridikoa:  
“Garrantzitsua da jendeak zer nahi duen adieraztea”



“Laguntzarako deiak oso erantzun ona izan du, prestutasun handia erakutsi dute herritarrek”.

1.- Protokoloa prestatu eta aurrera eramateko behar diren baliabideak lotzea; hautesmahaietarako jendea, galdeketa bermea izateko lanketa, galdeketa Kaxkoan kontzentratu edo auzoka egitea pentsatzea, ordu-tegi eta egunak finkatzea, zenbat herritarrek eman dezaketen bozka erabakitzea, pertsona bakoitzak boto bakarra eman-go duela nola bermatu, ze sistema informatiko erabiliko den horretarako, zer dokumentu aurkeztu behar duen jendeak, botoen zenbaketa nola egingo den... Laguntzarako deiak oso erantzun ona izan du, prestutasun handia erakutsi dute he-

rritarrek. Informatikari talde bat egongo da galdeketa egunetan, sistema informatikoaren funtzionamendua bermatzeko.

2.- Usurbilgo eta Gipuzkoako erronka handienetakoa da hondakinen zer egin. Erronka horren aurrean, pertsona bakoitzak iritzia eman eta gure ardura azaldu behar dugu. Prest gaude errauskailu bat jartzeko, ingurua kutsatu eta gure osasuna kaltetzeko? Kutsadura oso kaltegarria da, tamaina handikoa, osasun kalte handiak sortzen dituena. Horregatik, garrantzitsua da jendeak zer nahi duen adieraztea. Animatu eta bozkatu!

## Karmen Orbegozo, sustapena: “Herri borondatea kontuan hartzen hasi daitezela”



“Bozkatzeko lekuak bilatu, argindarra, mahaiak, aulkiak...  
Baliabideak bilatzea izan da gure eginbehar nagusia”.

1.- Bozka egunetarako baliabideak bilatzea izan da gure taldearen eginbehar nagusia; bozkatzeko lekuak bilatu, argindarra, mahaiak, aulkiak... Pixkanaka bati galdetu eta besteari eskatu eta osatzen zoaz. Gero baita ere bozka egun horretan zeintzuk egongo diren mahaietan. Hasieran 12 lagun bakarrik ginen. Gero pixkanaka zerrenda luzatzen joan da, 42 laguneko zerrenda osatu dugu. Ordezkoak ere baditugu jada. Argi utzi dugu, galdeketa eginda, bildutako datu guztiak ezaba-

tu eta desegingo direla.

2.- Beharrezkoa da galdeketa. Batzuen esku daude erabakiak gai askotan. Baina gehiengoaren ahotsa edo nahia ez du esan nahi haiek egiten ari direna denik. Nahi dutena egiten ari dira, gure diruarekin jolasten dabilta, gehiegizkoa da. Orduan eta jende gehiagok parte hartzen duen, ikusi dezatela herritarren kontrako egitasmo batekin ari direla eta agintean egoteak ez duela esan nahi, nahi dutena egin dezaketela. Hasi daitezela kontuan hartzen herri borondatea.

## Amaia Añorga, komunikazioa: “Ahalik eta jende gehienak har dezala parte”



“Ekimenak antolatu eta jendeari parte hartzeko deia egin diogunean,  
beti baieztokoak jaso ditugu”.

1.- 6-7 bat partaide gara. Lan dezente eskatuko zuela ikusita, talde honen barruan bospasei laguneko azpitalde bat ere osatu genuen, lipdub grabazioa antolatzeko. Antolatu ditugun ekimenen zabalkundea egin dugu. Gaia jendarteratu eta parte hartzea sustatu nahi izan dugu, galdeketa egunetan herritarren ehuneko handi batek botoa ematea nahi baitugu. Ekimenak antolatu eta jendeari parte hartzeko deia egin diogunean, beti baieztokoak jaso ditugu, azkenean erraustegiarena denok inplikatzin

gaituen gai bat baita.

2.- Inposaturiko gai bat izan beharrean, herriak hitza hartu eta bere ekarpena egin behar du eta ez goikoak bakarrik erabaki zer nahi duten guretzat. Ahalik eta jende gehienak parte har dezala, iritzia eman dezala. Garrantzitsua da jende askok parte hartzea, erantzun hori esanguratsua izateko herri eta Gipuzkoa mailan. Espero dut ezezko handi batek esatea ez dugula erraustegirik nahi, ez hemen, ez inon. Eta ia lortzen dugun erraustegirik ez eraikitzea.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA



**EROSKI** / city

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182



· bazkariak EGUNERO  
· afariak. asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

# Herri galdeketaz jakin beharrekoak

■ Egunak: urriak 21 ostirala, urriak 22 larunbata eta urriak 23 igandea.

■ Galdetuko dena: “Erraustegia egitea nahi duzu?”.


■ Erantzun posibleak: “Bai” eta “Ez” dioten bi bozka paper izango dira aukeran hautesle-kuetan. “Gutun-azala hutsik badago edo paper zuria badu, bozka zurizat hartuko da. Eredu ofizialari egokitzen ez zaizkion bozka txartelak balio-gabeak izango dira”. Pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du.

■ Nortzuk parte hartu ahalko duten: Usurbilen eta Zubietan erroldaturiko 16 urtetik gorako herritarrek.

■ Bi hautesontzi egongo dira; bat zubietarrentzat, bestea gainerako usurbildarrentzat.

## Galdeketa auzoka:

■ Urriak 21 ostirala:  
16:00-20:00 Aginaga, frontoia.



Boto-paperak hautes-mahaian izango dira. Pertsona bakoitzeko boto bakarra eman ahal izango da.

■ Urriak 22 larunbata:  
9:00-14:00 Santuenea, frontoia.

■ Urriak 22 larunbata:  
16:00-20:00 Zubietan, Kaxkape.

■ Urriak 23 igandea:  
9:00-20:00 Kaxkoa, Askatasuna Plaza.

■ Oharra: edozein mahaitan bozkatu ahal da, norberari on-

doen datorkion egun eta orduan.

## Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

■ NAN, EHNA + Errolda agiria, pasaporte edo gidabaimena.

■ Espainiar estatuak herritar-tzat hartzen ez dituen pertsonen dokumentuotako bat erakutsi

beharko dute: bizileku-txartela, jatorrizko estatuak jaulkitako nortasun agiria edo pasaporte, nortasun agiria/ziurtagiria, edo gidatzeko baimena.

-Kasu guztietan, aurkeztu beharreko dokumentazioan bizitokia Usurbil edo Zubietan dela agertu beharko da. “Hala ez bada, Udalaren erroldatze ziurtagiria (aurkeztutako identifikazio-agiria baino berriagoa eta 2016koa) eraman beharko da”.

## Informazio gehiago:

erraustegiaerabakia.wordpress.com

## Emaitzak, igandean bertan

Igandean amaituko da herri galdeketa. Gaueko 20:00etan itxiko da Kaxkoko hautesle-kuak, eta ordu horretan hasiko da bozka zenbaketa.

Erraustegia Erabakia plataformatik aditzera eman dutenez, zenbaketa ekitaldi publiko bidez egingo da.

# Ostiralean aurkeztuko dute lip-dub grabazioa

Erraustegia Erabakia herri plataformak igandean grabaturiko lipduba jendarean aurkeztuko du. Ostiral honetan izango da, urriak 21, arratsaldeko 20:00etan frontoian antolatuta duten ekitaldian.

## “Zorionak eta esker beroenak parte hartzaile guztiei”

Esker hitzok adieraziz, pozik asko agertu da Erraustegia Erabakia herri plataforma, urriaren 16ko lip-dub grabazioak izandako harrerarekin. Fermin Muguruzari ere eskerrak helarazi nahi dizkiote, “Hitza hartzeraz goaz” bere abestia erabiltzen uzteagatik.

800 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten lip-dub grabazioan. “Parte hartze izugarria”, nabarmendu dutenez. “Kopuru ederra da, gizartearen parte hartzea aktibatuta



Lip-dub-aren amaierako hamaiketakoa, urtean zehar hainbat ekimenetan gogotik lan egiten duten gaztaingileek prestatu zuten. Bildutako dirua plataformara bideratuko da.

dagoela erakusten duelako eta herritarren hitza kontuan hartu behar dela azpimarratu egiten duelako. Erraustegia ezarri nahi duten agintariekin ezin diote ezikusiarrena egin herritarren aldarrikapen honi”, adierazi dute.

Ekimenak sustatutako parte hartzeak antolatzaileen aurrekuspun guztiak gainditu ditu. Igandeko ekitaldian adierazi zena, herriaren isla izan dela diote. “Ikusi duzuen bezala, ekitaldi irudimentsu, koloretsu, umoretsu eta bizia izan da

gaur herritarren artean gauzatu duguna. Balore berezia du guretzat, gaurko ekitaldi hau herri osoaren isla izan delako; bertan izan dira jai batzordeko kideak, guraso taldeak, kirol taldeak, dantzakoak, musikariak, irakasleak, mendizaleak, feministak... elkarrekin zerranda luzea norbanako asko eta askorekin batera”, azpimarratu dutenez.

Lip-dubean egin bezala, parte hartzeraz animatzen gaituzte asteburuko herri galdeketa.

## Eskertza berezia gaztaingileei

Urtean zehar antolatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen dute, muxutruk, eta lan handia eginez. Lerroon bidez, urriaren 16an goizean goizetik lanean jardun zuten gaztaingileak eskertu nahi dituzte antolatzaileek.



# OEIT-ren esanetan, osasuna eta errausketa elkar lotuak dauden bi kontzeptu dira

Hilabeteotan eskaini dituzten hitzaldi, jardunaldi eta antzeko saioetan esandakoa berretsi zuten irailaren 29an Sutegiko auditorioan, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko (OEIT) kideek. Medikuen bilgunearen izenak jasotzen duen moduan, osasuna eta errausketa elkar lotuak dauden bi kontzeptu direla. Lotura toxiko argia dutela, hondakinak errausteak guztion bizimodua pozoitzeko arrisku ebidentea baitu. Eta honenbestez, Zubietan eraiki nahi diguten erraustegiak ere hainbat arrisku dakartza gure poltsikoaz gain, baita ingurumen eta osasunerako ere.

Hala zioten, urriaren 21etik 23ra antolatzen ari diren galdeketa begira, Erraustegia Erabakia herri plataformak iraila amaieran Sutegin antolatutako hitzaldira gonbidatu zituzten Xabier Mitxelena familia-medikuak eta Joxe Ramon Furundarena mediku hematologo usurbildarrak. GHK-k eraikitze lanak esleitzear dituen honetan, ardura printzipioa apli-



Irailaren 29an Sutegin izan ziren OEIT mediku taldeko bi kide: Xabier Mitxelena eta Joxe Ramon Furundarena medikuak.

## OEIT

**“3 kilometroko eremuan, hondakinak errausteak %3,5 igoarazi dezake minbizia-tasa. Minbizia mota batzuk, are gehiago”**

katzea eskatzen dute, “minik ez eragitea”, erraustegia eraiki eta martxan jartzeak arriskua eragin dezakeelako guztion osasunean. Gainera, “beste alternatibak badaudenez, aplikatu daitezela eta erraustegia ez dadila eraiki, ez hemen eta ez inon” eskatu zuten.

## “Osasun arazo serioak eragin ditzake erraustegiak”

Ez da txantxetako kontua. Minbizi mota ezberdinak izateko arriskua eta heriotza-tasa bera ere areagotu dezake Zubietan eraiki nahi diguten erraustegiak. Fetoetan malformazioak edota abortuak eragin, arnasbi-deetako gaixotasunak izateko aukera gehitu... Hitz gutxitan, osasun arazo serioak eragin ditzake erraustegiak.

Ez dira hitz hutsalak. 2002an Txingudin erraustegia eraikitzea planteatu zenetik gaur arte, lan mordoa egindakoa da

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea (OEIT). Interes gatazkarik izan ez, eta ingurumen osasuntsua sustatzea ere haien arduratzat duten mediku taldea, osasuna eta erraustegien arteko lotura ikertzen aritu da urteotan guztietan. Nazioartean argitaratu diren hainbat txosten aztertu dituzte. Nahikoa kalitate zutenak. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) esandakoari kasu eginez, gutxienez 10 urteetan zehar eginiko azterlanak ikertu dituzte. Epe hori gutxienez jotzen du NBE-k, erraustegiak herritarren osasunean izan dezaketen benetako eragina aztertzeko.

## Arrisku eza bermatzerik ez

Bildu dituzten datuak, azken hilabeteotan sarritan entzun dugun moduan, benetan kezkarriak dira. Gure osasun eta ingurumena babestuko duen bermerik ez dago. Erraustegitik 3 kilometroko eremuan esaterako, hondakinak errausteak %3,5 igoarazi dezake minbizia-tasa. Minbizi mota batzuk are gehiago.

# Erraustegiak, jasotako masa bera kanporatzen du

Medikuek Sutegin nabarmendu zutenenez, kalkulatu dago erraustegira sartzen den masatik zenbat kanporatzen den gero. Kalkulu erraza du, “erraustegira sartzen den masa eta ateratzen dena bera da. Ez ditu hondakinak ezabatzen”. Zabortegeien beharra izaten segitzen dute erraustegiak. Lehen aipaturiko gaixotasun iturri diren gai kutsatzaile ugari kanporatzen ditu erraustegiak. Tartean, guztion osasuna arriskuan jar dezaketen dioxinak eta furanoak ditugu. “Oso ku-

tsakorrak kopuru txikietan”, OEIT-tik ohartarazten dutenez. Eta haizeak urrutira zabaldu ditzakeenak. Hor ditugu baita, erraustegiak ezabatzen ez dituzten metal astunak, “35 metal ezberdin” mediku taldearen esanetan, erraustegiko “alde batetik ez bada bestetik ateratzen direnak” eta “gorputzean biometatzen dira”.

## Partikulak eta gasak

